

## 7 urte baino gehiagoko zerbitzuaren ondoren, garabia oroitzapen bat baino ez da

Azken 7 urteetan Katedraleko estalkietako lanak egiteko balio izan duen dorre-garabi itzelaren metalezko egitura oroitzapen bat besterik ez da. Joan den abenduan desmuntatu zen elementu hori, eta, horretarako, garabi teleskopiko batek esku hartu behar izan zuen, profesional-talde batek gorabeherarik gabe gauzatutako zehaztasun handiko maniobran.

Garabiaren desagertzea, gainera, erlantz berriaren bukaerarekin eta girolaren gaineko estalkia berreskuratzearekin bat dator. Hura eta gainerako aldazio elementuak kentzeak, orain Aiztogile kaletik eta ondoko kaleetatik hargintzako erlantz berriaren inguruan egindako lana xehetasun handiagoz ikusteko aukera ematen du.

Hala ere, garabia kendu izanak ez du esan nahi Katedrala birgaitzeko lanak amaitu direnik. Obrek aurrera jarraitzen dute beste esparru batzuetan, baina helburu berarekin: Gasteizi bere ondare altxorrik handienetako baten distira itzultzea.



## Katedrala, Euskadiren elementu erakargarri azpimarragarria **Fiturren**

Santa Maria Katedrala Euskadiko elementu erakargarri turistiko nagusietakoa da berriro ere Nazioarteko Fitur Turismo Azokan, Madrilen, urtarrilaren 18tik 22ra. "Obretan eta irekita" programak eta azken urteotan errealitate birtualeko esperientziak gehitu zaizkien bisita gidatuek interes handia pizten jarraitzen dute erreferentziako nazioarteko ekitaldi honetara hurbiltzen diren pertsonen artean.



## Bisita gidatuek eta aterpetxeak **'Zerbitzu Karta'** gehitu dute



Urtarriletik aurrera, Bisita Gidatueta eta Katedraleko Aterpetxean Zerbitzu Karta bat izango da. Termino hori duela urte batzuk sortu zen turismo-arretaren esparruan, eta etengabeko hobekuntzako prozesuei egiten die erreferentzia.

Zerbitzu Kartak herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen eta atxikitako erakundeek beren gain hartzen dituzten kalitate-konpromisoen berri emateko dokumentuak dira. Era berean, puntu horiek betetzen direla ziurtatzeko, ezarritako adierazle zehatzak urtero argitaratzeko konpromisoa hartzen dute erakundeek.

Horrela, Zerbitzu Kartari buruzko informazio guztia Fundazioaren zein Katedraleko Aterpetxearen webgunean dago eskuragarri. Prozesu honetan oso garrantzitsua izan da jasotako bisitarien eta erabiltzaileen iritzia. Hori dela eta, Fundazioak dei egiten die Katedralera edo Aterpetxera hurbiltzen diren pertsona guztiei, zerbitzua hobetzen lagunduko duten iradokizunak, iruzkinak edo oharrak helaraz ditzaten.



## Aterpetxea **Euskadiko Familia Turismo** klubeko kide da jada

**Basquetour Turismoaren Euskal Agentziak, Euskadi Familia Turismo Klubeko kide izendatu du Santa Maria Katedraleko Aterpetxea, abenduan egindako Auditoretza txostena behar bezala gainditu ondoren.**

Aintzatespen hori Bisita Gidatuen Programaren bidez lortutakoarekin dator bat, eta agerian uzten du aterpetxeako ardura-dunek, establezimenduan presentzia handiena duten kolektiboetako bat bihurtu diren haur txikiak dituzten familiei ostatu egokia bermatzeko egiten duten lana.

Auditoretzak era berezian baloratu du instalazioen egokitasuna, hainbat elementutan oinarrituta, hala nola familientzako jolas-gunea izatea eta geletan hobekuntzak sartzea, haurtxoentzako bainuontziak, besteak beste; familientzako zerbitzuak ezartzea, kolektibo horrentzako arreta-protokolo espezifiko batekin; eta familientzako zerbitzuari buruzko informazio zehatza zabaltzea, "Family Friendly" kontzeptuaren barruan.

Euskadiko Familia Turismoa proiektua hurrekin bidaiatzen



duten familiak hartzeko Euskadi jomuga egokia izateko lan-ildoa da. Euskadiko Familia Turismo kluba sortuz, Basquetourrek publiko horri zuzendutako Euskadiko eskaintza turistiko guztia bildu nahi du, eta esparru horretan jarduten duten Aterpetxea eta Bisita Gidatuen sorta bezalako eragileak aintzatsati.